

# Liburuak

KRITIKA

**Buruxkak.**  
Jean Etxepare.  
Elkar, 1980 (lehen edizioa 1910). 5,90 euro.



Hemeroteka  
*Aritz Galarraga*

## Ez denik ez dela

EZ DU BERRITIK: aho-betez esaten da literatur tradizio urria dugula, eta santujalea (are Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* irakurri ondotik). Salbuespenaren bila jo nahi izan nuen: Jean Etxepare (Bidegorri, ez nahas gainontzeko hiru Jean Etxepareekin).

Kultua, progresista, laikoa Aldekoaren hitzetan, haren bizitza, obra eta abarrak jorratu zituen Kepa Altonagak *Etxepare Aldudeko medikua* saioan. Jurgi Kintanak, atzera, idazle ezezagun, bere garaian menostu, baina gaur egun izugarri baliagarriaren bila, Etxepareren izena mahairatu zuen *Urre urdinaren lurrina* lanean. Horiek gehi legenda beltza: *Buruxkak* prentsa-artikulu bilduma, 1910ean argitaratu bazuen ere, zentsuratuta egon da hirurogeita hamar urtez.

Ez zeukan parerik ordura arteko euskal literaturan, diosku Altonagak. Eta eskandalurako, bi testu: heziketa laikoa mintzagai lehenak ("Apeza ez da eskola emateko egin"); amodio, nola esan, librea bigarrenak ("Badakizue emaztearen ixuria zakurraren alderat. Nihau, behin ikusirik nago, bortuan, biarnes bat lau zangotako astaña bati lotua (...) Ez zautalarik bizkitartean amodio hori hain bixia, ez zikina, nola gizona gizonari jarraikarazten duena"). Horiek gehi Jesukristoren aurka inoiz euskaraz idatzi den aurreneko iraina: "Eskuara hoin uzkur balin bada eta kilika, apezek dute hortaratua. Ez noa aski barna: hortaratua dute Galileako zurgin seme pedoilaren irakaspenek".

Horiek gehi, batez ere, Etxepareren prosa, idazkera, aratza eta aberatsa, joskera nola hiztegia, baxenafarra, laborantzaz aparte, erlijiotik kanpoko auziak azter eta idazgaitzat hartu zituen bakarra izateko, gerokoentzat argibide eta etsenplu parerik gabea, edozein gaitaz euskaraz idatz zitekeenaren eta idatzi behar zenaren adibide garbia. Horiek gaur bere graziak. Amen.

Egun eskuragarri dugun *Buruxkak*, 80koa, hirugarren edizioa, berez da irendubakoa, baina nik moztuko nioke zerbait, Piarres Lafitteren sarrera testua. Ez bakarrik edizio zahar zentsuratuaren hitzaurrea delako, baizik eta halako apropiazionismo ariketarik ez baita aspaldian ikusi: Etxepare, urte beltzen ondoren, nola bueltatzen den erlisionearen altzora, katoliko on eredugarriaren itxura hartzeraino. Beste Piarres batek, Xarritonek, dio: gehiegitxo.

Edo, tira, ondo pentsatuta ez nuke ezer kenduko eta aho-betez esan dadila literatur tradizio urria dugula, baina batez ere santujalea. Etxeparek berak esango lukeen bezala: ez denik ez dela mundu zabalean. ■

## 'Orbetarrak' trilogia ixten duen nobela

Euskal literaturaren historian gutxi izango dira Joan Mari Irigoienek *Orbetarrak* trilogia bezain obra mardulak. Hiru bolumenetan argitaratua, lehenengoa, *Bestea da mundua*, 2008an eman zen argitara (ikus ARGIAren 2.149. zenbakian idazlearekin izandako elkar-rrizketa). Iaz publikatu zen bigarrena, *Hara-giaren gauak eta egunak*. Orain berriz, nobela


burutu du Irigoienek *Nor bere bidean*ekin. Damaso eta Gabino, orbetarren familiako azken bi ordezkariak dira liburuiko protagonista. Mundua ulertzeko modu arras diferente izan eta elkarrengandik urrunduta bizi ostean, gutun bidez berreskuratuko dute harremana Burgosko epaiketa-  
ren garaian. ■



**Nor bere bidean.**  
Joan Mari Irigoien.  
Elkar.  
682 orrialde.  
27 euro.

## 'Gose jokoak'-en bigarren zatia euskaraz

Nazioarteko best-seller ezaguna da Suzanne Collinsek *Gose jokoak*. Stephen King nobelagile ezagunak honela definitu zuen: "Rap bizkor, biolento, urduri-jartzaile baten antzeko nobela da (...) ezin nion irakurtze-ari utzi". Iaz publikatu zuen nobela Alberdania euskaraz eta orain *Dena sutan* argitaratu dute Ereinekin batera. Trilogiako bigarren lanean gizarte azpiratua, altxamenduak... aurkituko ditugu. Giro distopikoa da nagusi: Katniss Everdeenek abenturak ezagutzen jarraituko dugu. Idazleak geroz eta proba gogorragoak jarriko dizkio pertsonaiari eta bigarren liburu honetan, gainera, pertsonaien arteko harremanek garrantzi berezia hartuko dute. ■



**Dena sutan.**  
Suzanne Collins.  
Alberdania-Erein.  
444 orrialde.  
19,50 euro.